



BILBOKO GAZTE LONJENTZAT GOMENDIOAK



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO



HARREMANA

❖ **Gazte-lonjak: Bilboko Gazte Lonjen
Bizikidetzarako Zerbitzua**



610 467 439



gaztelonjak@bilbao.eus



www.bilbaogazte.bilbao.eus/es/servicio/gaztelonjak/



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

sal

Gomendio hauen bidez, Bilboko Udalak lonja duten gazteak kezka ditzakeen administrazio, lege, segurtasun, bizikidetza edo osasunaren arloko ardurei buruzko kontsultarako eta orientaziorako gida eskaini nahi du.

Gazteria eta Kirol Sailak abian jarri zuen Gazte-Lonjak Zerbitzuaren barruan sartzen da. Zerbitzu hori bizikidetzarekin eta segurtasunarekin lotutako gaiei erantzuteko edo zailtasunak gestionatzeko eta erabileraren gaineko gomendioei buruzko informazioa emateko da, etengabeko zerbitzurako telefonoa eta whatsapp eskainita auzotarrei eta gazteen lonjen jabeek eta erabiltzaileei.

Gomendio hauek zuen aisialdia gestionatzeko baliagarriak izatea, elkarriketarako eta partaidetzarako leku berriak aurkitzea eta lankidetzak jarraitzea nahi nuke.

Eskerrik asko!

Gazteria eta Kirol Sails





www.bilbaogazte.bilbao.eus/es/servicio/gaztelonjak/

Google play



GOMENDIOAK


Gazteen lonjen funtzionamendu egokirako gomendioak daude bilduta hemen. Gomendio hauek lonjak erabiltzen dituzuenen eta inguruan bizi direnen bizikidetza ziurtatzeko dira funtsean.

Edozein zalantza edo gorabehera baduzue, jarri harremanetan sailarekin. Gomendioak zelan bete daitezkeen laguntzen eta orientatzen saiatuko gara.

Administrazio arloko Gomendioak

- ❖ Kontratua indarrean edukitzea.
- ❖ Erantzukizun zibileko poliza edukitzea.
- ❖ Sare orokorretik datorren edateko ura edukitzea.
- ❖ Baimendutako instalatzaileak egindakoa izango da instalazio elektrikoa eta Behe-tentsiorako Elektroteknikari buruzko Arautegia bete beharko du.





@ Harremanetarako Gomendioak

- ❖ Udalari lonjaren jabearen eta errentan hartu duenaren izen-abizenak eta **harremanetarako** telefonoak jakitera ematea.

Lonjen Egokitasunari buruzko Gomendioak

- ❖ Lokalaren gutxienezko altuera 2,50 metrokoa izatea
- ❖ Komunen azalera gutxienez 1,2 metro karratukoa izatea
- ❖ Lokal hauek ez lituzkete etxebizitzek eta ohiko bizitokiak berezkoak dituzten ekipamenduak (sute-giak, oheak eta abar) eduki behar.
- ❖ Ez da erregaia izan daitekeen materialik erabiliko sabaia edota hormak apaintzeko.
- ❖ Komuna eta konketa dituen bainugela, aireztapen naturalekoa edo kanpora ematen duen saretaren bidezkoa.
- ❖ Gehienez baimendutako edukiera errespetatuko da (pertsona bat m2 bakoitzeko eta gehienez 100 pertsona irteera bakarra duten lokaletan. Irteera horrek gutxienez 80 cm-ko zabalera edukiko du.



Bizikidetzarako Gomendioak

- ❖ Musika-ekipo, telebista edo horrelakoak erabiliz gero, Ingurumenari buruzko Ordenantzan ezarritako zarata-mugak ez dira gaitutuko eta kontu handiagoz aritu beharko da 23:00etatik 07:00etara bitartean.
- ❖ Lonjaren kanpoaldea eta ingurua higiene-arloko baldintza egokietan egongo dira eta ez da lokalaren jardueraren ondoriozko zaborrik edo objekturik utziko kanpoaldean.



Osasunerako Gomendioak

- ❖ Lokala bitarteko egokiz eta beharrezko sarritasunez garbitu beharko da eta ez dira substantziak (zaborrak eta beste batzuk) pilatuko, baldin eta erabiltzaileen osasunerako kaltegarriak izan badaitezke.
 - ❖ Erraz garbitzeko eta desinfektatzeko modukoak izango dira.
 - ❖ Animaliak lonjetan egotea debekatuta dago.
 - ❖ Lokalaren aireztapen orokorra eta aldizkakoa berma dezan sistema jarriko da, hatsik ez egoteko. Sarre-rako ateaz gain, leiho, saretxo, xafla eta abarren bidezko beste aireztapen modu bat egongo da.
 - ❖ Lehen laguntzak emateko botikina eduki beharko dute lonja guztiek.
- 

Segurtasun arloko Gomendioak

- ❖ Larrialdietarako atea: Lonjaren edozein lekutatik kanpoko atera gehienez 25 metro egotea.
- ❖ Irteeretako ateak ez dira giltzaz itxiko barrutik eta pertsianak ez dira jaitsita egongo lonjen barruan pertsonak dauden bitartean.
- ❖ Larrialdietako argiak edukitzea
- ❖ Ezin da jatekoa suteagian prestatu eta ezin da surik egin lonjen barruan.
- ❖ Era berean, erregaiak, objektuak edo materialak eta beste biltzeagatik leherketa edo sutea sor dezakeen jarduerarik ez da egin behar.
- ❖ Gutxienez 21A-113B eragina duen eta 5 kg-koa den su-itzalgailu bat egongo da.
- ❖ Lokaleko edozein lekutatik su-itzalgailuetara ibili beharreko gehieneko distantzia 15 metrokoa izatea.

